

Irakasleak bizikidetzan trebatzeko materialak.

III. MODULUA

KOMUNIKAZIORAKO TREBETASUNAK

AURKIBIDEA: Komunikaziorako trebetasunak.

LEHEN SAIOA: Komunikazioa esperimendatuz.

- Saioaren aurkezpena: helburuak eta jarduerak.
- "Elkarrizketa bikoteka". Aurkezpen jarduera.
- "Esaten dizut... ulertzen didazu...": mezu beraren esanahi desberdinen gaineko bizipen-jarduera.
- "Zer ulertzen dugu komunikaziotzat?" Proposatutako testuak irakurri eta iruzkinak egitea.
- "Telefono eroa". Komunikazioaren zailtasunak esperimendatzeko dinamika.
- "Bahituaren enigma". Konpontzea, edukia eta harremana komunikazioan kontuan hartuz.
- "Komunikazio txarra". Umorezko bideoa.

BIGARREN SAIOA: Komunikazioaren oztopoak.

- Saioaren aurkezpena: helburuak eta jarduerak.
- "Binaka". Harremanetarako eta komunikaziorako jarduera.
- "Lagun bati entzunez". Gainerakoak entzutean hartzen ditugun jarreraren gaineko hausnarketa.
- "Komunikazioaren amarruak". Testua irakurri eta aztertzea.
- "Errotuluak". Komunikazioan ezezko jarrerak bizitzeko dinamika.
- "Irakasleen bilera". Komunikazioa oztopatzen duten jarreretan sakontzea.

HIRUGARREN SAIOA: Modu aktiboan entzunez.

- Saioaren aurkezpena: helburuak eta jarduerak.
- "Gauza guztietarako tresna". Ahozkoa ez den komunikazioa bizitzeko talde-dinamika.
- "Esaldi osatugabeak". Ezagutzarako eta komunikaziorako talde-dinamika.
- "Entzuteko denbora". Arretaz eta hautemate desberdinez jabetzeko jarduera.

- "Entzute aktiboa". Power pointeko diapositiben aurkezpena.
- "Zuk badiozu, nik badiot". Parafraseoaren teknika praktikatzeko jarduera.
- "Hirunaka entzutea". Entzute aktiboa praktikatzea.

LAUGARREN SAIOA: Lehen pertsonan hitz eginez.

- Saioaren aurkezpena: helburuak eta jarduerak.
- "Errota". Ahozkoa ez den komunikazioa bizitzeko talde-dinamika.
- "Bideratu nire marrazkia". Ahozko adierazpena garatzeko eta haren gainean hausnartzeko jarduera.
- "Eramanen nituzkeen hiru gauzak dira...": komunikazioa eta harremana taldean sustatzeko dinamika.
- "Mezuak lehen pertsonan". Power pointeko diapositiben aurkezpena.
- "Mezuak eraldatuz". "Ni-mezuak" praktikatzeko jarduera.
- "Argituz hitz egiten dugunean". Baliabideak praktikan jartzea mezu argi eta zehatzak ematerakoan.
- "Ni-mezuekin praktikatuz". Lehen pertsonan egindako mezu batekin erantzuteko egoerak.

BOSGARREN SAIOA: Hizkuntza deskriptiboa.

- Saioaren aurkezpena: helburuak eta jarduerak.
- "Errepikatzaileak". Gainerakoak entzutean sortzen diren zailtasunak esperimintatzeko hasierako jarduera.
- "Oldarkorra, pasiboa, asertiboa". Adierazpenak sailkatzea gailentzen den estiloaren arabera.
- "Feed back deskribatzailea". Testua irakurri eta iruzkinak egitea.
- "Mezu deskribatzaileak edo ebaluatzaileak". Mezuak sailkatzea.
- "Hizkuntza deskribatzailea". Jarduera honetan galdera bat egin behar da, aurkeztutako mezua argitzen

laguntzeko eta komunikazioa modu deskribatzailean "berriz txertatzeko".

- "Komunikazioa umore modura". Bineta bat aztertzea hizkuntzaren eta komunikazioaren ikuspuntutik.

SEIGARREN SAIOA: Elkarrizketa ikasleekin. Irakasleendako hezkuntza tresna bat.

- Saioaren aurkezpena: helburuak eta jarduerak.
- "Galdera bat da?" Ideien, iritzien eta abarren azalpena galderetatik bereizteko hasierako jarduera.
- "Aprobetxategi". "La entrevista: un instrumento de trabajo para el profesorado" [Elkarrizketa: irakasleendako lan-tresna]" bideoaren lehen eszena lantzea.
- "Elkarrizketa". Testua irakurri eta aztertzea. Hezkuntzako elkarrizketak egiteko gidoia prestatzea.
- "Prestatutako elkarrizketa". Bideo beraren bigarren eta hirugarren eszenak ikustea: "Hitzordua" eta "Prestatutako elkarrizketa". Taldeka behatu eta komentatzea.
- "Elkarrizketarako gidoia". Prestatutako gidoa doitzea. Bateratzea.
- "Benetako elkarrizketa bat prestatzea". Elkarrizketa bat prestatzea hurrengo egunetan egiteko.

ZAZPIGARREN SAIOA: Elkarrizketa familiarekin, irakasleendako tresna.

- Saioaren aurkezpena: helburuak eta jarduerak.
- "Komunikazioa bizkarra emanez". Komunikazioaren alderdi ez-ahozkoen gaineko dinamika.
- "Munduko jokorik zaratatsuena". Entzuteko eta entzuna izateko jarduera.
- "Zezenari adarretatik eutsiz". "La entrevista: un instrumento de trabajo para el profesorado" [Elkarrizketa: irakasleendako lan-tresna]" bideoaren laugarren eszena lantzea.

- "Gurasoei entzunez". Ikusi bideoaren bosgarren eszena. Behatu eta komentatzea.
- "Konponbideak bilatuz". Ikusi bideoaren azken eszena eta komentatu talde osoan.
- "Benetako elkarrizketa prestatzea". Elkarrizketa bat prestatzea hurrengo egunetan egiteko.

ZORTZIGARREN SAIOA: Komunikazioa hobetuz.

- Saioaren aurkezpena: helburuak eta jarduerak.
- "Zurumurrak". Komunikazioan gertatzen diren desitxuratzeen gaineko talde-dinamika.
- "Bost itsasargien uhartea". Testua irakurri eta aztertzea. Komunikazioa hobetzeko bost giltzarrien gainean taldean eztabaidatzea.
- "Agurreko mezuak". Egindako lana ebaluatu eta baloratzeko jarduera.

LEHEN SAIOA: Komunikazioa esperimentatuz.	hcs01a00
<p>HELBURUAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• Parte-hartzaile guztiak ezagutzea.• Taldeka parte hartzeko dinamikak garatzea.• Komunikazioaren gainean hausnartzea ikusmolde desberdinetatik abiatu. <p>JARDUERAK</p> <ul style="list-style-type: none">• "Elkarrizketa bikoteka". Aurkezpen jarduera, taldekideen ezagutzan sakontzeko.• "Esaten dizut... ulertzen didazu...": mezu berari pertsona batek baino gehiagok ematen dizkio(te)n buruzko esanahi desberdinen gaineko bizipen-jarduera.• "Zer ulertzen dugu komunikaziotzat?" Proposatutako testuak irakurri eta iruzkinak binaka egitea.• "Telefono eroa". Komunikazioaren zailtasunak esperimentatzeko dinamika.• "Bahituaren enigma". Enigma bat taldean konpontzeko jarduera; kontuan hartu behar dira edukiaren alderdiak eta komunikazioaren harremana.• "Komunikazio txarra". Ikusi komunikazioaren gaineko umorezko bideo labur bat.	

Elkarrizketa bikoteka

hcs01a01

HELBURUA: Lantaldeko parte-hartzaile guztien ezagutzan sakontzea.

PROZEDURA: Parte-hartzaileak binaka eta modu askean elkartuko dira baldintza bakarrarekin: gutxien ezagutzen dutena aukeratu behar dute bikotekide modura. Lehenik, bikotekide batek bestea elkarrizketatuko du 5 minutuz. Bizitza pertsonalaren, profesionalaren, interesen, zaletasunen eta abarren inguruko galderak egingen dizkio. Baita "Zer egingen zenuke baldin eta...?" moduko galderaren bat ere. 5 minuturen buruan rola aldatuko dira: galderak egin dituen orain bere buruaz hitz egiten duena izanen da. Denbora bukatu ondoren, denak talde handiaren zirkulura itzuliko dira eta bestea labur aurkeztuko dute; haren izena eta bere interesen eta/edo zaletasunen xehetasunen bat, eta gainerako informazioa bikoteak beretako gordeko du. (Adibidez: "hau Ana da, eleberri historikoa irakurtzeko zaletasuna duena eta janaria prestatzea gustatzen ez zaiona")

Aldaerak:

Galderak prestatu eman daitezke, elkarrizketa, gutxiago edo gehiago, formala izan dadin.

Esaten dizut... ulertzen didazu...

hcs01a02

HELBURUA: Mezu berak eduki eta sentimendu desberdinak iradokitzen dituela jabetzea, mezu hori hartzen duen pertsonaren arabera.

PROZEDURA: Animatezaileak parte-hartzaile guztiei eskatuko die begiak itxi ditzatela eta minutu erdiz piano bat izan dezatela buruan. Jarraian, bakoitzak bere esperientzia kontatuko du: batzuek pianoa ikusi izanen dute; beste batzuek, entzun, eta bestetuek bizi izandako esperientzia bat gogora ekarri izanen dute...

Emandako hitzaren eta jasotakoaren arteko aldean gainean hausnartu behar dute denek.

Zer ulertzen dugu komunikaziotzat?	hcs01a03
<p>Hurrengo testuak bikotetan irakurri eta komentatu ondoren, idatzi komunikazioaren gaineko idazki labur bat (3-4 lerro) batera jartzeko.</p>	
<p>Zenbait teoriarik uste dute:</p> <p>Gure bizitzan nonahi ditugu informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKTk). Horrek guztiak laguntzen du komunikazioaz dugun ikuspegia oinarrian mezuen transmisioan oinarritzen den prozesu modura hartzen. Arazoa da transmititzearen ideiak oso ongi azaltzen duela teknologia horiek erabiltzen dituzten seinale horiekin (argi-uhinak, uhin hertziarrak, kode digitalak, etab.) gertatzen ari dena, baina oso gaizki azaltzen du pertsonak zer egiten duten seinale horiek garraiatzen dituzten mezuekin.</p> <p>(López Yáñez, 2008)</p> <p>Komunikazioa oinarrizkoa eta berezkoa du espezieak; hori jakintzat ematen dugu. Hala ere, eguneroko arazorik gehienek komunikazio gabezia edo komunikazio akastun batean dute jatorria. Bizitzaren gaineko ikaskuntzaren gakoa eta norbera ezagutzeko aukera ezberrik gabe harremanean bilatu behar dira. Komunikazioa harreman hori izateko aukera ematen duen prozesua da. Komunikazioa ez da errealitatean gertatzen den zerbait, errealitatea komunikazioan eraikitzen den zerbait baizik.</p> <p>Dena komunikazioa da: jarduera edo jarduerarik eza; hitzak edo isiltasuna; ezinezkoa da ez komunikatzea.</p> <p>Komunikazioa azaltzeko erabili ohi den eskema oso bakuna da eta errealitatea hori baino konplexuagoa da: aldi berean igorle eta hartzaile gara. Komunikazioan oso prozesu konplexuak gertatzen dira: semantikoak, neurologikoak, psikologikoak, sozialak eta kulturalak.</p> <p>(Guix, 2008).</p> <p>Komunikazioaren inguruan proposatzen ari garen ikuspuntuak zerikusia du 'Communicatio' terminoaren latindar erroaren zentzuarekin; bateratzea, partekatzea, multzoko zerbaitetan parte hartu esan nahi zuen, eta ez transmititu (gaur egun esanahi hori ematen diogu). Gizarte sistemak komunikazioaren inguruan egituratzen dira, eta oinarri horren gainean sortu eta sostengatzen dira. Gatazkak komunikazioan sortzen, garatzen eta batzuetan konpontzen dira edo ez dira konpontzen. Edozein aldaketa prozesu eta gainerakoen jokabidearen gainean eragin nahi duen edozein ekintza, kateaturiko komunikazio-ekintzak dira, oinarrian.</p>	

(López Yañez, 2008)

Komunikazio orok eduki bat izanen du (esaten duguna) eta harreman bat (nori eta nola esaten diogun). Komunikazioaren bitartez, denok adieraz dezakegu nolakoak garen eta nola dakusagun gainerakoak. Komunikazio batek ez du soilik informazioa transmititzen. Aldi berean, jokabide edo portaera bat inposatzen du. Mezu baten "eduki mailak" "INFORMAZIOA" transmititzen du. "Harreman mailak" erakusten du komunikazioak balio duela nire solaskidearekin ezarri nahi dudan harreman-mota "ZEHAZTEKO".
(Watzlawick, 1986)

Telefono eroa

hcs01a04

HELBURUA: Komunikazioaren zailtasunez jabetzea eta esperimentatzea mezu bat nola eraldatzen den hartzaileak interpretatu eta berriro formulatu ondoren.

PROZEDURA: Parte-hartzaile guztiak zirkuluan jarriko dira. Animatzaileak bere ondoan duenari belarrira esanen dio konplexutasun sintaktiko handi samarra duen mezu bat. Azken honek, ulertu ondoren, ondoan duenari esanen dio mezu bera eta hala, jarraian, zirkulua osatu arte. Mezua azken pertsonarenganaino iristen denean, ahots ozenez esan eta hasierako mezuarekin erkatuko du. Informazioa noiz galdu, aldatu edo gehitu den aztertuko da, baita horren zergatiak ere.

Aldaerak:

Pribatuan (ikasgelatik kanpo) egin daiteke: gertaera bat pertsona bati kontatzen zaio eta honek beste bati eta hala seik edo zazpik istorio hori kontatu arte. Azkenean, azken bertsioa lehenarekin alderatzen da eta sortutako aldaketak aztertzen dira.

<p style="text-align: center;">Bahituaren enigma (Watzlawick, P.; Helmick, J.; eta Jackson, D. (1986). <i>Teoría de la comunicación humana</i>)</p>	<p style="text-align: center;">hcs01a05</p>
<p>Taldekide bakoitzari bahituaren enigmaren testua emanen zaio (erantzunik gabe). Bakarka irakurtzeko eskatuko da. Minutu batzuk igarota, 5-6 pertsonako taldeak eginen dira konponbidea eztabaidatzeko. 10 minuturen buruan, bateratuko da eta konponbidera iristeko kontuan hartu beharreko alderdiak aztertuko dira.</p>	
<p><i>"Bi zaindarik bi ateko gela batean daukate gatibua. Gatibuak badaki ateetako bat giltzaz itxita dagoela eta bestea ez, baina ez daki bietako zein dagoen irekita. Era berean, badaki zaintzaileetako batek beti egia esaten duela eta besteak gezurra esaten duela, baina ez daki zeinek esaten duen egia eta zeinek gezurra. Esan diote haren askatasuna berreskuratzeko modu bakarra dela zaintzaileetako bati galdera bat eginez giltzaz itxi gabeko atea identifikatzea".</i></p> <p>Kontuan hartu behar dira komunikazioaren bi alderdi hauek: <i>edukia</i> eta <i>harremana</i>.</p>	

Soluzioa:

Galdera honako hau izan daiteke: "beste zaindariari galdetzen badiot zein atetatik atera behar dudan, zer erantzunen lidake?"

Gezurak esaten dituenari galdetu badiot, erantzuna honako honen antzekoa izanen litzateke: "beste zaindariak esanen lizuke ateratzeko erabili behar duzun atea dela (okerreko atea)".

Egia esaten duenari galdetu badiot, erantzuna honako honen antzekoa izanen litzateke: "beste zaindariak esanen lizuke ateratzeko erabili behar duzun atea dela (okerreko atea)".

Beraz, edozein zaindariri galdetuz gero haiek esandakoa ez den kontrako atea erabili beharko litzateke ateratzeko.

BIGARREN SAIOA: Komunikazioaren oztopoak.	hcs02a00
<p>HELBURUAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• Taldeka parte hartzeko dinamikak garatzea.• Komunikazioaren zailtasunen gainean hausnartzea.• Komunikazioa "ixten" den egoerak esperimentatzea. <p>JARDUERAK</p> <ul style="list-style-type: none">• "Binaka". Parte-hartzaileen artean harremanak egiteko eta komunikatzeko jarduera.• "Lagun bati entzunez". Gainerakoak entzutean hartzen ditugun jarreraren gaineko hausnarketa.• "Komunikazioaren amarruak". Testua irakurtzea. Komunikazioaren oztopoak taldean aztertu eta hausnartzea.• "Errotuluak". Komunikazioan ezezko jarrerak bizitzeko dinamika.• "Irakasleen bilera". Komunikazioa blokatzen duten jarreretan sakontzeko jarduera "arrainontziaren" teknika erabiliz.	

HELBURUA: Taldeko kideen alderdi batzuk ezagutzea. Taldekide guztien arteko harremana eta distentsioa erraztea.

PROZEDURA: Parte-hartzaile bakoitzari jarduera anitz dituen fitxa bat emanen zaio. Ataza guztiek zerikusia dute taldekideren batekiko komunikazioarekin. Parte-hartzaile guztiei eskatuko zaie proposatuko zaizkien jardueretatik gutxienez 5 egin ditzaten 10-15 minutuz. Nahi dituztenak aukera ditzakete eta nahi duten hurrenkeran egin ditzakete.

Jarduera ereduak:

- Zoazte taldeko pertsonarik altuenarengana eta hitz egin harekin kirolez.
- Hurbildu zaitetz oso aktiboa iruditzen zaizun pertsona batengana eta komentatu harekin hurrengo oporretarako planei buruz.
- Zoaz betaurrekodun pertsona batengana eta hitz egin harekin musikaz.
- Bilatu zure jantzi baten antzekoa duen pertsona bat eta hitz egin harekin modaz eta arropaz.
- Jo ezazu zure gustukoa den koloreko jantzia duen pertsona batengana eta galde iezaiozu zer espero duen taldeko jarduera hauetatik lortzea.
- Zoaz gutxien ezagutzen duzun pertsona batengana eta hitz egin harekin eta saiatu aurkitzen baterako zaletasunen bat.
- Aukeratu taldeko hiru pertsonarik helduenak eta hitz egin haiekin lanbidearen gainean.
- Hurbildu zaitetz harremanik ongien konpontzen zaren ikaskide batengana eta hitz egin harekin inoiz hitz egin gabeko gai baten gainean.
- Bilatu takoiak daramatzen emakume bat eta jakin telebista programa berak ikusten ote dituzuen.
- Saia zaitetz zure adin bereko norbait aurkitzen eta hitz egin harekin haurtzaroko gauzez.
- Hurbildu zaitetz gertu duzun norbaitengana eta hitz egin harekin ikastetxeaz.
- Aurkitu ezazu karguren bat izan duen norbait eta hitz egin harekin karguaz.
- Hitz egin ezazu kutsaduraz erdialdera bizikletan edo garraio publikoan doan norbaitekin.
- Zoaz ikastetxean denborarik gutxien daraman norbaitengana eta hitz egin harekin hura iritsi zenean itxura ona hartu zion gauzez.
- Zoaz despistatua ematen duen pertsona batengana eta hitz egin harekin norberaren nolakotasun eta akatsen gainean.

Lagun bati entzunez	hcs02a02
Parte-hartzaile bakoitzari "Laguni bat entzunez" fitxa emanen zaio. Eskatuko diegu irakurri eta bakarka bete dezatela. Denek bukatu dutenean, "Ohiko laguntzak" fitxa eman eta eskatuko diegu haiek idatzitako erantzuna fitxakoarekin alderatzeko. Jarraian, taldeak nahi adina iruzkin egingen ditu.	
"Lagun bati entzunez". Etxera bidean lagun batekin egin duzu topo. Aztoratu samar dago. Zer moduz galdetu diozunean, zure lagunak esan dizu gaur zer gertatu zaion lanean. "Nagusiak eskatu dio aparteko lan bat egiteko, presako zerbait. Hala ere, goiza ez da erraza izan: dei eta ustegabe asko izan ditu. Halako nahaspilarekin nagusiak agindutakoa ahaztu egin du. Beste lankide batzuekin batera etxerako bidea hartzera zihoanean, nagusia heldu da eta lana erreklamatu dio. Oso egun mugitua izan duela azaltzen saiatu da. Baina hark eten egin dio, ahots zakar eta garratzarekin. Oihu egin dio, gainera: "Ez dut zure aitzakirik entzun nahi; zertarako demonio ordaintzen dizut, egun osoa eserita emateko edo?" Lankideek ez-entzunarena egin dute. Gauzak presaka bildu eta gelditu gabe alde egin du." Nolabait ere lagundu behar duzu. Idatzi hemen nola egingen zenukeen.	

Ohiko "laguntzak"	
"Geldiarazi behar duzu, bestela suntsitu eta miseria gorrian utziko zaitu..."	Mehatxu egin
"Ez dut ulertzen zergatik ukitu zaituen horrenbeste, ez du merezi halako ergelkeria batengatik kezkatzea. Ez da bada hain larria izanen... hala, hala..., egizu barre"	Sentimenduak ukatu
"Zoaz bihar bere bulegora eta esaiozu ez duzula gehiago halako irainik onartuko..."	Agindu, zuzendu
Baina zer larritasun ziren horiek? Beste noizbait halakorik gertatu zitzaizun?..."	Galdekatu, galdetu
"Kontua da zure nagusia zure aita balitz bezala hartzen duzula eta jarrera hori drama bat balitz bezala bizi duzula..."	Interpretatu, "psikoanalizatu"
"Begira, lanak halakoak dira, dena ez da zuk nahi bezala izaten; adibideak jarriko dizkizut..."	Lezioak eman, filosofatu
"Badakizu zer egin behar duzun? Lanean segitu nahi baduzu, aurkeztu lan hori bihar goizean, lanean hasi bezain agudo."	Aholkatu
"Hara, ederra egin diozu nagusiari. Onartu: ez da harritzekoa sutan jartzea."	Ezetsi, besteari arrazoia eman
"Hori gertatu zaizu ganoragabea zarelako eta ez dakizulako zeure burua antolatzen; lehentasunak beti lehentasun dira"	Mespretxatu, iraindu
"Motel, ikaragarria, pena ematen didazu, a zer zorte txarra..."	Errukitu, domaia izan

Komunikazioaren amarruak	hcs02a03
<p>Hurrengo testua bakarka irakurri ondoren, egin 4-5 pertsonako taldeak. Hitz eginen da komunikazioan gertatzen diren "amarruez" edo izaten diren "zailtasunez". Ikasleei eskatuko zaie esan dezatela zein diren irakasleen eta ikasleen arteko harremanetan ohikoenak. Eta, orobat, adibiderik ohikoenak emateko eskatuko diegu. Taldeen lana bateratuko da.</p>	
<p style="text-align: center;">Komunikazioaren amarruak</p> <p>Ondokoarekin harremanetan jartzen gara haren asmoen eta desioen gainean guk uste dugunaren auresuposizioetatik abiaturik. Horretaz gainera, haren asmoak gureekin alderatzen ditugu, gure emozioen arabera balioesten ditugu; hor daude testuinguruak baldintzatzen duena, aurreko esperientziak...</p> <p>Galdetuz gero ez genuke auresuposiziorik eginen, informazioa argituko genuke, bere pentsamenduen gainean besteari pentsaraziko genioke. Galderak egitea ez da gure solaskidea hirugarren gradutik pasaraztea. Galderaren itxurarik ez duten galderak egin behar dira. Bestearekin egon behar dugu bihotzetik abiaturik; bestela, lagundu beharrean, aztertu eginen dugu.</p> <p>Maiz halako amarruetan erortzen gara:</p> <p>Auresuposizioak:</p> <p>Gauzak segurutzat jotzea da, nik hala dakusadalako gainerakoek ere nik bezala ikusiko dutela pentsatzea (irakurketa mentala, jokabide arrotzaren interpretazioa, besteei gertatzen zaizkien gauzen zergatiak asmatzea, iritziak eta kategorizazioak...)</p> <p>Kontseiluak ematea:</p> <p>Inor ez dago bizitzan une berean, ezta maila berean ere: "ni zu izan banintz", "nik zure tokian..." moduko kontseiluek ez dute balio. Ustez eta laguntzen ari garen besteak txikiago bihurtzen ditugu eta ez diegu pertsona moduan handiagotzen uzten. Hobe da beti hausnaraztea eta ez dena xehe-xehe eman edo adibide moduan jartzea.</p> <p>Sentitu behar den hori esatea:</p> <p>Ezin da besteak pentsatzen duena gutxietsi. Esan ohi dugu: "ez zaitetz horrela jarri"; "tira, tira, ez da horrenbestekoa"; "edozeratik haserretzen zara"; "ez izan tristea"...</p> <p>Jarraibide paradoxikoak:</p> <p>Maiz betezinak diren aginduak ematen ditugu. Ohikoa da esatea "zaren bezalakoa izan zaitetz".</p> <p>Arrazoia izan nahi izatea:</p>	

"Ez gaude hemen arrazoa izateko, maitatzeko baizik". (Demartini)
Setatzeen aurka segurtasun eza handiak ezkututzen dira. Arrazoitzea adimenaren tresna da, planifikatzeko, antolatze... ezin hobea. Hala ere, bizitza kontuetan sentimenduek arrazoiak baino gehiago balio dute; bizia bizitzen dugu ez dugu pentsatzen.

Norberak bere buruari entzutea:

Maiz, gure interesekoak ez diren kontuak esaten dizkigun solaskideari ez diogu kasurik egiten; "deskonektatu" egiten dugu. Ez da beti elkarrizketa astuna izaten; batzuetan gehiago erreparatzen diegu gure sentsazioei, gure pentsamenduei, esan behar dugun horri...; geure burua entzuten ari gara.

Azken hitza esatea:

"Arrazoa izatearen" ordezkoa da. Azken hitza esatera ohitzen bagara, harremanetan boterearen jokoan sartuko gara berriro.

Deus esan gabe hitz egitea:

Zintzotasunez hitz egin beharrean, ulermena desbideratzen duten hitzontzikerian erortzen gara. Asko hitz egiten dugu, baina ez dugu deus ere esaten. "Ez dakit zer esan duen; hala ere, hitzak hain ederrak izan dira".

Desitxuratze kognitiboak:

Komunikatzerakoan garrantzitsua izanen da zer esanahi ematen diegun gure animo egoerei, pentsamenduei eta jokabideei. Esanahi horiek zentzua ematen diete gure gaur egungo bizitzari, oroitzapenei, etorkizunean espero dugunari eta norberak bere burua nolakotzat duen usteari.

- iragaztea edo pertzepzio-hautapena; nire animo egoerarekin bat datorrena soilik hartzea; "betaurreko batzuen" bidez ikustea.
- pentsamendu dikotomiko edo polarizatua, dena zuri edo beltz ikusten da, edo bai edo ez...; bizitza ezin da horrela erraztu.
- gehiegizko jeneralizazioak; gertaera batetik edo batzuetatik abiatuz, esperientzia ezezkorra bizitzako egoeretara hedatzen da, egoera horiek gertaerarekin zerikusirik ez badute ere.
- inferentzia arbitrarioak; alde aurretik ondorio jakin bat ateratzen da hura frogatzen duen ebidentzia bakar bat gabe edo kontrako guztia agerian utziz.
- pertsonalizazioa; gertaerak norberarekin lotzea. Norberaren erantzukizunetik ihes egiten duen zerbait pertsonalizatzea.
- "egin beharko nuke/luke": euren buruei, besteei eta bizitzari asko eskatzen dietenak. Egunik gehiena "egin beharko nuke/luke" esanez ematen duenak edozein harreman hondatzen du. "Egin beharko nuke/luke" esaldiek orainalditik urruntzen gaituzte; orainaldian "egiten dugu" eta horrekin aski dugu.
- justizia, arrazoi eta aldaketa falaziak; nahasteak edo desitxuratzeak, konbentziturik gaudenean pertsonalki nahi dugunarekin bat egiten ez duen oro ez dela zuzena edo egiaren jabe garenean edo gu bakean egon ahal izateko besteek euren jokabidea aldatu behar dutenean.

Lehen usteak:

Komunikazio oro harremana da. Topaketa bakoitzak arau inplizitu batzuk

ditu, zein gizartetan bizi garen, haren ingurukoak. Lehen topaketetan lehen usteak sortzen dira.

- ezaugarrien teoria: hasierako ezaugarri gutxi batzuetatik abiaturik, pertsonak oso azkar garatzen dituzte pertsonen arteko pertzepzioak eta bestean nortasunaren ezaugarri jakin batzuk antzematen direnean jasotako ezaugarri-multzoarekin lotutako ezaugarri-multzoa sistematikoki ematen zaio. Beharbada pertsona horrenak ez diren ezaugarriak inferitzen ditugu eta horrek esperientzia harrigarri bihurtzen du "begietako benda kentzen digutenean", "nola ez ginen konturatu bada nolakoa zen"; dibertigarria da ikustea nola lehenago ez zen "guk uste genuen bezalakoa" eta orain ez den "benetan den bezalakoa".
- kategoria sozialak: talde-kategoriak nortasun edo posizio soziala ematen du. Talde batekin identifikatu edo hartatik bereizten ahal gara. Horrela aterako dira gero konparazioak, aurreiritzaik eta diskriminazioa.

Beldurrak, segurtasun ezak eta eskakizunak:

Gauzak esatean komunikazioaren prozesua zail dezaketen "hotsak" sor daitezke, baina, aldi berean, gertatzen ari denaren gaineko informazioa emanen digute. Honela mintzo diren pertsonak:

- oso azkar
- oso apal
- hitz egiterakoan ahoa estaltzen dutenak eta keinu gehiegi egiten dutenak
- hitz egiteko erritmoa aldatzen dutenak

Hotsek zailago egiten dute edukiak ulertzea, baina harremanetarako aukera hobezina ematen digute. Gertaera horien atzean beldurrak, segurtasun ezak eta eskakizun asko ezkutatu ohi dira. Hitz egitea bezalako gauza xumea antsietatez bizi da.

Guix-etik egokitua (2008)

Errotuluak

hcs02a04

HELBURUA: Komunikazioa oztopatzen duten jarrerak eta entzuna izan nahi duen pertsonarengan zer sentimendu eragiten duen bizitzea.

PROZEDURA: Parte-hartzaile bakoitzari bizkarrean errotulu bat jarriko zaio; ez du jakinen zer jartzen duen. Errotulu horietan komunikazioa oztopatzen duten ohiko jarrerak aipatuko dira, hala nola, "nitaz errukitu zaitez", "egin iezadazu iseka", "kontseila nazazu", "zutaz hitz egin iezadazu", "erakuts iezadazu", "esaten dizudana interpreta ezazu", "esadazu zer egin dudan gaizki", "garrantzia ken iezaiozu esaten dizudanari", "gaia desbidera ezazu"...). Parte-hartzaile guztiak gelan barna ibiliko dira eta berriki gertatutako zerbait kontatu beharko diote ikaskide bati. Entzuten ari denak beti aritu beharko du hitz egiten ari denak bizkarrean duen errotuluan dioenaren arabera. Bakoitzak 4-5 pertsonekin hitz egin ondoren, jarduera geldituko da eta galdetuko zaie ea nola sentitu diren eta ea bizkarrean daramaten kontsigna zein den asmatzen ote duten. Modu aktiboan entzutea galarazten duten jarreraren gaineko iruzkinak.

Morales (1999) liburutik egokitua.

Irakasleen bilera

hcs02a05

HELBURUA: Komunikaziorako jarrera ezezkorretan sakontzea.

PROZEDURA: "Arrainontziaren" teknika erabiliko da. Parte-hartzaile guztiak zirkuluan jarriko dira. Erdian, 6 pertsona jarriko dira, hauek ere zirkuluan. Barneko zirkulukoek egingen dute lana eta kanpokoak, berriz, behatzaileak izanen dira. Erdialdeko 6 pertsonak irakasle bilera batean baleude bezala egingen dute eta hartan ikastetxean "Bizikidetzaren astea" antolatzeko jarduerak diseinatuko dituzte. 6 pertsonatako bakoitzari txartel bat emanen zaio taldean bete behar duen rolaekin.

- "Xelebrea". Jostaria izaten ahalegindu behar duzu, gainerakoen ideiak umore moduan komentatu behar dituzu, puztu, beti absurdu-puntu bat jarri, txisteak kontatzen ariko bazina bezala...
- "Zorte txarrekoa". Beti gauza ezkorak bilatzen ditu, gainerakoen ideiak kritikatzeko dituzte, zailtasunak bilatzen ditu...
- "Buruzagia". Bilerak funtzionatzeko duela ahalegindu behar du. Denek parte har dezaten saiatu eta denek ideiak bildu, adostasuna bilatuz.
- "Jokoz kanpo dagoena". Ez zaizu gaia interesatzen eta handik edo hemendik saiatzen zara beste gai batzuei buruz hitz egiten edo beste hizketagai batzuk ateratzen.
- "Ni neurera". Konbentziturik zaude zure ideiak direla onenak eta gainerakoak hitz egiten hasten direnean eten egiten diezu zure proposamenera itzuli eta behin eta berriz errepikatzeko.
- "Adigalkorra". Ezin diozu mugitzeari edo beste alde batera begiratzeari utzi, ez duzu beste inoren ezer entzuten eta ahalegintzen zara ondoan duzuna distraitzen.

12-15 minutu igaro ondoren, solasari ekingo zaio. Behatzaileek ikusi dituzten jokabideak komentatzeko dituzte. "Aktoreek" nola sentitu diren esan behar dute. Komunikazioa gehien oztotatu duten jokabideak aztertuko dira.

HIRUGARREN SAIOA: Modu aktiboan entzunez.	hcs03a00
<p>HELBURUAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• Taldeka parte hartzeko dinamikak garatzea.• Taldekideen arteko konfiantza sustatzea.• Entzute aktiboko teknikak praktikatzea.• Entzute aktiboa gainerakoekin komunikatzeko ohiko beste praktika batzuetatik bereiztea. <p>JARDUERAK</p> <ul style="list-style-type: none">• "Gauza guztietarako tresna". Ahozkoa ez den komunikazioa bizitzeko talde-dinamika.• "Esaldi osatugabeak". Elkarrekiko ezagutza eta komunikazioa errazteko jarduera.• "Entzuteko denbora". Entzuterakoan arretaz eta hautemate desberdinez jabetzeko jarduera.• "Entzute aktiboa". Entzute aktiboaren gaineko kontzeptuak azaltzeko power point diapositiben aurkezpena.• "Zuk badiozu, nik badiot". Parafraseoaren teknika praktikatzeko jarduera.• "Hirunaka entzutea". Entzute aktiboko praktikak hiru pertsonako taldeetan.	

Gauza guztietarako tresna

hcs03a01

HELBURUA: Ahozkoa ez den komunikazioa bidez.

PROZEDURA: Parte-hartzaile guztiak zirkuluan jarriko dira. Animatzaileak objektu bat proposatuko du (hagatxo bat, zurpusketa bat, ehunki-zati bat, soka bat...) eta esanahi bat emanez erabiliko du (txirula bat, arraun bat, jostorratz bat... balitz bezala). Ondoan dagoenari pasatuko dio eta azken honek emandako esanahia hartu eta aldatu beharko du. Berdina egingen duen beste bati pasatuko dio. Denei pasatuko zaizkie objektu horiek eta tresna berari esanahi bat baino gehiago emanen diote.

Novara eta Passerini-tik hartua (2005)

Esaldi osatugabeak

hcs03a02

HELBURUA: Elkarrekiko ezagutza eta sentimenduen eta balioen komunikazioa erraztea.

PROZEDURA: Parte-hartzaile bakoitzari osatu beharreko 6 esaldi dituen orri bat emanen zaio. Taldearen tamainaren arabera, 2-3 esaldi-joko desberdin presta daitezke. Parte-hartzaile bakoitzak esaldiak zintzotasunez beteko ditu. Jarraian, taldekide bakoitzak guztiekin partekatu nahi dituen erantzunak batera jarriko ditu eta denak parte hartzera animatuko ditu, baina inor behartu gabe. Bukaeran, ariketak elkar ezagutzeko baliagarria denetz hitz egingen da.

Esaldi ereduak:

- Aste honetan gertatu zaidan gauza on bat da...
- Damutu zen ... utzi izanaz.
- Hamar urte gutxiago izanen banitu, ez litzaidake axola izanen...
- Hezkuntzako ikuskatzaile izan banintz...
- ...izatea gustatuko litzaidake.
- Askok molestatzen nau ...
-
- Gaur egun oso pozik nago ...
- Denbora gehiago dudanean gustatuko litzaidake ... aritzea.
- Hezkuntzako zuzendari nagusi izan banintz, lehenik ... egingen nuke.
- Ez nuke irakaskuntza utzi nahiko, ... gabe.
- Nire lanean gehien atsegin dudana ... da.
- Gehien haserrarazten nauena da pertsona batzuek...
-
- Dirurik izanen banu, ... gustatuko litzaidake.
- Ikasi izan banu...
- ... bizi nahi izanen nuke.
- Energia gehiago izan banu, ... arituko nintzatekeen.
- Poztasunez gogoratzen dut ...(n) gertatu zitzaidana.
- Irakaskuntzan gutxien gustatzen zaizkidan gauzak dira...

A. Pinto-tik eta beste batzuegandik egokitua (2010)

Entzuteko denbora	hcs03a03
<p>HELBURUA: Entzuteko beharrezkoa den arretarako jarreraz jabetzea eta konturatzea nola ez dugun denek modu berean interpretatzen entzundakoa.</p> <p>PROZEDURA: Isilune osoko minutu batean denek adi entzun behar dute, baita urrutien dauden soinuak entzun ahal izateko ere. Jarraian, entzundako soinuak denek gogoratzeko eskatuko da. Alderatuko da batzuek eta besteek entzun dutena eta entzundakoaz interpretatu dutena.</p> <p>Aldaerak: Ikastetxetik kanpora atera daiteke eta inguruko hots eta soinuak entzun.</p> <p>Novara eta Passerini-tik hartua (2005)</p>	

Zuk badiozu, nik badiot	hcs03a05
<p>HELBURUA: Entzute aktiboa eta parafraseoaren teknika praktikatzea.</p> <p>PROZEDURA: Taldea handia bada, 10-12 pertsonako taldeetan banatuko da. Talde bakoitzean eskatuko da bi boluntariok gaurkotasuneko gai bati buruz hitz egin dezaten (irakasleen aginpidea ikasgelan, bullying-a eskolan, teknologia berriak eta irakaskuntza, lanaldi jarraitua lehen irakaskuntzan...). Taldekoek zirkulu bat eginen dute eta bi boluntarioak erdian jarri eta gaiaz 5-10 minutuz hitz eginen dute. Baldintza hau bete behar dute: norberak bere ikuspuntua zein den esan baino lehenago, bakoitzak beste ikaskideak esandakoa parafraseatu behar du. Hala, elkarrizketaren erdian, pertsona bakoitzak besteak esandakoa entzuten du eta esaten ari dena laburtzen du bere iritzia eman baino lehenago. Gainerako taldekideak behatzaile aritzen dira. Bukaeran esanen dute zer ikusi duten entzuteari eta parafraseoaren erabilerari dagokionez. Prozedura bera errepikatuko da beste bi pertsonekin.</p>	

Hirunaka entzutea

hcs03a06

HELBURUA: Entzute aktiboaren trebetasunak praktikatzea.

PROZEDURA: Hiruko taldeetan jarriko dira. Batek besteari kontatuko dio zer pasatu zaion eta azken honek modu aktiboan entzun beharko dio. Horretarako ikasitako trebetasunak praktikatuko ditu:

- interesa erakutsi ahoz eta ahoz ez den modu batean (jarrera, gorputz-postura, ikusiz...).
- informazioa argitzeko galdera irekiak
- parafraseatu: igorleak hitzekin esan duena berresan
- sentimenduak islatu: besteak sentitzen duen horri izena eman
- laburbildu: informazioa eta sentimenduak antolatu eta modu laburtuan itzuli

Hirugarrenak entzuten duena behatu behar du eta ongi egiten duenaren eta hain ongi egiten ez duenaren gaineko oharrak hartu behar ditu.

Rolak aldatuko dira hirurek hiru gauzak egiteko: hitz egin, entzun eta behatu.

Jarduera bukatzen denean, hirurek esanen dute nola sentitu diren entzutean eta entzunak izatean eta zein alderdi izan diren onenak eta txarrenak. Batek ideia nagusiak laburbilduko ditu talde handiari erakusteko gero.

LAUGARREN SAIOA: Lehen pertsonan hitz eginez.	hcs04a00
<p>HELBURUAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• Taldeka parte hartzeko dinamikak garatzea.• Lehen pertsonan emandako mezuak ezagutzea.• Ni-mezuak beste mezu mota batzuetatik bereiztea.• Komunikazioa praktikatzea ni-tik abiatuz. <p>JARDUERAK</p> <ul style="list-style-type: none">• "Errota". Ahozkoa ez den komunikazioa bizitzeko talde-dinamika.• "Bideratu nire marrazkia". Ahozko adierazpena garatzeko eta haren gainean hausnartzeko binaka egiteko jarduera.• "Eramanen nituzkeen hiru gauzak dira...": taldekide guztien artean komunikazioa eta harremana sustatzeko dinamika.• "Mezuak lehen pertsonan". Kontzeptuak zehazteko power point diapositiben aurkezpena.• "Mezuak eraldatuz". Ni-mezuak praktikatzekeo jarduera.• "Argituz hitz egiten dugunean". Mezu argi eta zehatzak ematerakoan baliabideak erabiltzeko binaka egiteko jarduera.• "Ni-mezuekin praktikatuz". Taldean egiteko jarduera: ematen diren egoerei lehen pertsonan egindako mezu batekin erantzun behar zaie.	

Errota	hcs04a01
<p>HELBURUA: Ahozkoa ez den komunikazioaren aukeretan sakontzea.</p> <p>PROZEDURA: Parte-hartzaile guztiak aretoan barna ibiliko dira eta gainerakoekin zeharkatuko dira, hitzik egin gabe. Bakoitzak bestearekin harremanetan jartzen ahalegindu beharko du, hau da, norekin topo egin nahi duen, harekin. Pertsona horrek gonbita onartzen duenean (ez ahoz), gelditu eta parez pare jarriko dira. Bikote guztiak osatu ondoren, bakoitzak bere solaskideari adieraziko dio (ez ahoz) baduela zerbait hari esateko. Solaskideak ere adieraziko dio (ez ahoz) ahalik eta ongien esan nahi dion hori. Jarraian, bikoteko kideei esanen zaie elkarri esan nahi dioten hori ahoz esan diezaiotela elkarri. Sekuentzia gutxienez hirutan errepikatuko da. Parte-hartzaileen kopurua ez bada bikoitia, animatzailea parte-hartzaile moduan sartuko da taldean, inor bikotekiderik gabe geldi ez dadin. Bukatzeko, bizipenak eta erabilitako komunikazio-formak nahi moduan komentatuko dira: keinuak, begiratuak, ohiko agurrak, ukitzeak...</p> <p>R. Hostie-tik egokitua (1994)</p>	

Bideratu nire marrazkia	hcs04a02
<p>HELBURUA: Adierazpena garatzea solaskidea kontuan hartuz eta zerbait objektiboren (adibidez, irudi bat deskribatzearen) gainean ahalik eta ulermenik handiena bilatuz.</p> <p>PROZEDURA: Binaka jarriko dira. Pertsona bakoitzak orrialde bat eta argazki edo marrazki bat jasoko du; ikaskideak ez du ikusi beharko. Lehenak orrialdean marrazki bat egin beharko du ikaskideak ematen dizkion jarraibideen arabera. Eman zaion irudia ahalik eta modurik zehatzenean landu behar du. Bukatutakoan egindako marrazkia jatorrizko irudiarekin alderatu behar da. Segidan, rolak aldatuko dira.</p> <p>Novara eta Passerini-tik hartua (2005)</p>	

Eramanen nituzkeen hiru gauzak dira...

hcs04a03

HELBURUA: Pertsonen ezagutza eta komunikazioa handitu eta taldekide guztien arteko harremana eta konfiantza erraztea.

PROZEDURA: Galdera hau egingen da: "¿Zer hiru gauza eramanezen zenituzke uharte bakarti batera?". Bakoitzak pentsatu beharko du zer objektu pertsonal eramanezen lituzkeen eta zergatik hautatu dituen horiek eta ez beste batzuk. 5 minutu igaro ondoren, 4-5 pertsonako taldeak egingen dira eta haietan aukeratutako objektuen eta haiek hautatzeko arrazoen gainean egingen da solas. Talde guztietan pertsona guztiek parte hartu dutenean, iruzkin orokorra egingen da. Talde bakoitzak gainerakoei azalduko die solasaldia nolakoa izan den, bateratasunik, harridurarik... izan den eta abar.

Mezuak eraldatuz

hcs04a05

HELBURUA: Lehen pertsonan egindako mezuen adierazpena lantzea.

PROZEDURA: Bikoteka jarriko dira. Batak besteari esaldiak esanen dizkio (aldez aurretik idatzita eman dizkionak) ahalik eta adierazkortasunik handienarekin. Entzuten ari denak esan beharko du mezua "iraingarria" edo "onargarria" den. Iraingarria edo mingarria dela esaten badio, igorleak esaldia berregin beharko du onargarritzat eman arte. Funtsean "zu-mezuak" "lehen pertsonako mezu" bilakatu behar dira. 5-6 esaldi egin ondoren, rolak aldatuko dira.

Eman daitezkeen esaldiak:

- "berandu iritsi zara eta zure erruz ez naiz garaiz iritsiko kontzertura"
- "sekula ez dituzu lanak garaiz bukatzen"
- "oso urduri jartzen ari naiz ordenagailuaren aurrean denbora nola galtzen duzun ikustean"
- "zergatik ihes egiten diezu lanei? sukaldea jasotzeko txanda zurea da"
- "zikin hutsa zara eta leporaino nago etxe osoan botata uzten dituzun gauzak biltzeaz"
- "zure seme alfer hutsa da eta ez ditu sekula ere etxeko lanik egiten"
- "taldearen bilera aldatu duzu niri ezer esan gabe; beti ni gogaitzen ari zara"
- "barregarria da horregatik atsekabeturik egotea, egoerak ez baitu inolako garrantzirik"
- "zergatik utzi behar dituzu paperak nire mahaiaren gainean? dena nahasten duzu"

Aldaerak:

Bikote batek talde guztiaren aurrean egin dezake ariketa hau.

Argituz hitz egiten dugunean

hcs04a06

HELBURUA: Baliabideak praktikatzea igorritako mezu baten esanahia argitzen saiatzeko eta mezua ulertu dela ziurtatzeko.

PROZEDURA: Bikoteka jarriko dira, ahal dela harremana duten eta lanean bat egiten duten bikoteak izanen dira (departamentuko, zikloko lankideak, maila bereko ikasleei klasea ematen dietenak...). Bikotekide batek "igorle"aren rola hartuko du. Saiatuko da oker ulertutako gatazkaren bat azaltzen, gertatu zaion ustekabekoren bat edo azken asteetan gertatu zaion zerbait. Prozedura ondokoa izanen da: lehenik zerbait esanen du, gero isilik geldituko da eta bere mezua nola argitu pentsatuko du. Laguntzako "makulu" hauek izan ditzake:

- honako hau esatean nahi nuen...
- esan dut ...(z) hitz egin nahi nuelako
- hala esatean hala sentitzen nintzen...
- hori esan dizut espero dudalako zuk...
- nik hau esan ondoren, nahi nuke zuk...

Bikotean rolak aldatuko dira eta prozesua errepikatuko da.

NI-MEZUEKIN PRAKTIKATUZ

hcs04a07

Ni-mezua asertiboa da, ez du bestea errundun bilakatzen, ez du gatazka gorago eramaten eta oker-ulertuak murrizten ditu. Mezu bat lehen pertsonan egitean kontuan hartu behar da...

- Egoera deskribatzen dela
- Sentimendua, emozioa adierazten dela
- Arrazoa argituko dela
- Beharrak, aldaketa ahoz adieraziko direla

4-5 pertsonako taldeetan, formulatu ni-mezu bat jarraian deskribatzen diren askotariko egoerei aurrea hartzeko:

1. Etxera iritsi zara, ahituta, lanean egun osoa eman ondoren. Sukaldean hantxe daude jan hondarrak jaso gabe eta zure semeetako bat telebista ikusten ari da eta bestea telefonoz solasean. Arroparen bat botata eta entrenamendurako bi zapatila pare bainugelan.

2. Irakasle gelan sartu zarenean bi lankide hurbildu eta esan dizute tutoretzakoak alfer hutsak direla, oso desmotibaturik daudela eta, gainera, portaera txarra dutela. Berriro esan dizute zerbait premiaz egin behar duzula.

3. Josuneren amarekin hitz egin behar duzu. Zenbait irakasle kexu da Josunek klasean duen portaera ikusita: Plastikako orduan ez darama materialik; Ingelesekoan ez ditu etxeko lanak egiten; Matematikakoan beste zerbaitetan aritzen da; Hizkuntzakoan ez da isiltzen... azken bi asteetan birritan egotzi dute klasetik.

4. 3. F-ko ikaslea da Mikel. Zigorturik daukazu eta bere portaeraz hitz egin behar duzu berarekin. Matematikako irakaslearen parte iritsi zaizu eta hartan esaten da ikasle lotsagabea dela, ez duela zuzenkizunik onartzen eta hala segitzen badu ez duela maila gaitutuko.

Lana taldeka egin ondoren, batera jarriko da talde handian eta ekarpenak gainbegiratuko dira; aztertuko da mezuek baldintzak betetzen dituzten eta "zu-mezuak" ez diren.

BOSGARREN SAIOA: Hizkuntza deskriptiboa.	hcs05a00
<p>HELBURUAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• Taldeko kide guztien parte-hartzea sustatzea.• Komunikazioaren zailtasunetan sakontzea, entzuteari eta adierazpenari dagokionez.• Feed back deskribatzailea feed back ebaluatibotik bereiztea.• Feed back deskribatzailea praktikatzea. <p>JARDUERAK</p> <ul style="list-style-type: none">• "Errepikatzaileak". Hasierako jarduera, gainerakoak entzutean ditugun hautemateak, sentsazioak, sentimenduak... alde batera uzteko zailtasuna esperimentatzeko.• "Oldarkorra, pasiboa, asertiboa". Hirunaka egiteko jarduera, gailentzen den komunikazio-estiloaren arabera adierazpideak sailkatzeko.• "Feed back deskribatzailea". Testua irakurri eta iruzkinak taldeka egitea.• "Mezu deskribatzaileak edo ebaluatzaileak". Mezuak sailkatzeko jarduera, lehenik bakarka eta gero hirunaka.• "Deskribapen hizkuntza". Binaka egiteko jarduera. Jarduera honetan galdera bat egin behar da, aurkeztutako mezua argitzen laguntzeko eta komunikazioa modu deskribatzailean "berriz txertatzeko".• "Komunikazioa umore modura". Bineta bat taldeetan aztertzea hizkuntzaren eta komunikazioaren ikuspuntutik.	

Errepikatzaileak

hcs05a01

HELBURUA: Besteari arreta egiteko eta entzuteko lana lantzea, behatzea zein zaila den aldi berean entzutea norberaren iritziak eta/edo sentrazioak tartekatzen utzi gabe.

PROZEDURA: Parte-hartzaileak 6-7 pertsonako taldeetan jarriko dira eta talde bakoitzari 20-25 argazki desberdin emanen zaizkio. Boluntario batek argazkien artetik gehien edo gutxien gustatzen zaiona aukeratuko du. Taldekide guztiei erakutsiko eta esanen die argazki horretan zerk erakartzen edo urruntzen duen. Gainerakoek adi entzunen dute. Azalpenak eman dituenean, beste taldekide batek lehenari esanen dio zer den bere mezuan ulertu duena. Orduan lehenak esanen dio ea bigarrenak egiazki eta ongi berradierazi duen bere mezua. Ez du azaldutakoa berriro azalduko, baizik eta harekin ados dagoen edo ez esanen du. Ez badago ados, hirugarren parte-hartzaile batek lehenak eta baita laugarren batek ere esandakoa adieraz dezake. Lehena pozik geratzen denean bere mezuaren berradierazpenarekin, beste parte-hartzaile batek hartuko du argazkia eta hartatik zerk erakartzen edo atsekabetzen duen adieraziko du. Dinamika 3-4 aldiz errepikatuko da.

R. Hostie-tik egokitua (1994)

Oldarkorra, pasiboa, asertiboa

hcs05a02

HELBURUA: Identifikatzea zer adierazpide eta/edo jarrera diren oldarkorrak (edo borrokarakoak), zein pasiboak (edo ihesari ematekoak) eta zein asertiboak.

PROZEDURA: Hirunaka jarriko dira eta hirukote bakoitzari esaldi-zerrenda bat duen orri bat emanen zaio. orri horretan adierazpideak jarriko dira edo gatazka baten aurrean erreakzionatzeko moduak deskribatuko dira. Hiru zutabeko kartulina handi bat jarriko da eta zutabe bakoitzean hitz bat idatziko da: oldarkorrak, pasiboak, asertiboak. Esaldiak eta jarrerak bikoteka aztertuko dira eta ebaki eta zutabe bakoitzean jarriko dira. Bukatutakoan, denbora-tarte bat utziko da denak kartulinaren aurrera joan daitezten eta esaldiak irakur ditzaten. Egindako sailkapenarekin ados daudenetz ikusiko da. Esaldiak honako hauen antzekoak dira:

- "oso nahasita zaude; hau nik esan moduan egiten da eta kito!"
- "ongi da; ez du merezi nagusiarekin hitz egitera joatea; ordu pare bat geldituko naiz lana bukatzera"
- "lanak beti berandu entregatzen dituzu, ematen du ezin diozula hemengo erritmoari jarraitu"
- "denak begira nituela ikusi nuenean, isildu nintzen eta lotsa irentsi behar izan nuen"
- "lau kontu esanen nizkioke, baina hobe da isiltzea"
- "planetan aldaketak daudela jakiten dudanean ez dudala deustako balio iruditzen zait eta erabaki aurretik nola dauden jakin nahiko nuke"
- "6etan genuen hitzordua eta 7ak hamar gutxitan agertu zara; zain egoteak sumintzen nau, zu orduan iristea nahiko nuke eta ezinezkoa bada gaztigatu aldeztatik"
- "zure lana kaka zaharra da luze eman baitut hutsegite mordoa konpontzen"
- "ama hasten zaidanean zer egin behar dudan, itzuli erdia egin eta nire logelan sartzen naiz"
- "badaezpada ez nion ezer ere esan, bestela ez litzateke jadanik nire laguna izanen"
- "ordutegiak aldatu behar direnean asko desantolatzen naiz eta gustatuko litzaidake gertatu bezain agudo jakitea"
- "ikusten? oso tematia zara; ez dakit zurekin honetan lanean segitu nahi dudan"
- "irakasle horrek ez du zuzen jokatu nirekin; ez da batere objektiboa izan"
- "uste dut ez nautela ulertzen; izugarria da!"
- "uste dudanean dagokidana baino zerbait gehiago egiten dudala, abusua dela iruditzen zait eta nahiko nuke atazak banatzeko akordio batera iristea, denondako balioko duen hitzarmen batera"
-

FEED-BACK DESKRIBATZAILEA	hcs05a03				
<p>Irakurri testua, 3-4 pertsonako taldeak prestatu, testua aztertu eta galdera hauek erantzun:</p> <ul style="list-style-type: none"> • gure ikasleei feed back-a ematen diegunean agertu beharko luketen alderdiak • maiz eman arren ezertarako ere balio ez duten feed back ereduak jarri (aipatu 4-5 mezu) • aurreko ereduak erreferentzia modura harturik, erabilera eskaseko mezuak ematen direnean azaldu zertan egiten den huts maizenik • bereziki ikasleei dagokienez, nola indartuko litzateke hizkuntza deskribatzailea irakasleen bileretan? Zehaztu gutxienez 4-5 ekintza zehatz. <p>Taldeetan landutakoa batera jarri.</p>					
<p style="text-align: center;">TESTUA</p> <p>Feed-back-a eman eta hartzea da gainerakoek dituzten edo norberak dituen jokabideen eta/edo gertaeren gainean iritzia ematea, teknikoki eta zintzotasunez. Norberari edo gainerako pertsonari buruz informazioa emateko eta jasotzeko prozesu hau Johariren leiho moduan ezagutzen den ereduaz zehazturik gelditu zen (Joseph Luft eta Harry Ingham):</p> <table border="1" data-bbox="368 1408 1262 1839"> <tr> <td data-bbox="368 1408 852 1608"> <p>Arlo irekia Guk geuk eta gainerakoek ezagutua</p> </td> <td data-bbox="852 1408 1262 1608"> <p>Arlo itsua Guk ez dugu horren berri, baina gainerakoek ezagutzen dute</p> </td> </tr> <tr> <td data-bbox="368 1608 852 1839"> <p>Arlo ezkutua Norberari buruz norberak duen informazioa, gainerakoek ezagutzen ez dutena</p> </td> <td data-bbox="852 1608 1262 1839"> <p>Arlo inkontzientea Kontziente ez garen alderdiak, aldi berean besteek ere ezagutzen ez dituztenak</p> </td> </tr> </table> <p>Feed-back-ak bi norabide ditu: batetik, edukiaren informazio teknikoa ematen du, gauzak nola egin behar diren esaten du; eta bestetik, esanahia eman eta harremana zehazten du Egiakzi feed-back eraginkorra emateko:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. oso ongi egindako gauzak azpimarratzea eta zertan egin den 		<p>Arlo irekia Guk geuk eta gainerakoek ezagutua</p>	<p>Arlo itsua Guk ez dugu horren berri, baina gainerakoek ezagutzen dute</p>	<p>Arlo ezkutua Norberari buruz norberak duen informazioa, gainerakoek ezagutzen ez dutena</p>	<p>Arlo inkontzientea Kontziente ez garen alderdiak, aldi berean besteek ere ezagutzen ez dituztenak</p>
<p>Arlo irekia Guk geuk eta gainerakoek ezagutua</p>	<p>Arlo itsua Guk ez dugu horren berri, baina gainerakoek ezagutzen dute</p>				
<p>Arlo ezkutua Norberari buruz norberak duen informazioa, gainerakoek ezagutzen ez dutena</p>	<p>Arlo inkontzientea Kontziente ez garen alderdiak, aldi berean besteek ere ezagutzen ez dituztenak</p>				

ongi zehaztea

2. "hobetu beharreko alderdiak" nabarmentzea eta zer hobetu behar den zehaztea
3. harremanari zuzendutako mezua igortzea; "izakia" eta harremana hartzen ditugu kontuan

Zintzotasun eraginkorra: pentsatzen edo sentitzen duguna adierazten dugu eta kontuan hartzen dugu modu egokian eta eraginkorrean egin behar dugula informazioa xehakaturik delako. Oreka-puntu hori lortzea zaila da. Batzuek ezezkotasun-iragazki bat dute, oker dagoena soilik ikusten dute: "ez zait deus ere gustatu (zer) eta objektiboa izaten ahalegindu naiz... baina begira... batzuetan gauzak oker ateratzen dira (zer gauza), ea hurrengoan hobetzen duzun..."

Aitzitik, beste batzuek nahiago izaten dute erlaziozko mezuan arreta jartzea: "zorionak, zer ongi, asko poztu naiz". Entzun: "lan ona egin duzu" lausengua eta autoestimurako dosi ona da. Baina etorkizunerako ikasi nahi badugu, askoz ere lagungarriagoa izanen litzateke esanen baligute zehazki zer egin dugun ongi.

Feed-back deskribatzaileak arreta jartzen du ekintzan eta ez ekintza hori egiten duen norbanakoarengan. Jokabidearen osagaiez eta ondorioz hitz egiten da. Subjektuari atzeraelikadura deskribatzailea itzultzean, emaitza hobeak lortzen dira, gatazkak saihesten dira eta pertsonak egoeraren eta/edo jokabidearen berariazko alderdiak hobeki ulertzen dituzten laguntzen da.

Aitzitik, **Feed-back ebaluatzaileak** pertsonarengan jartzen du arreta, bere osotasunean hartuta, ekintza jakin bat egin duelako edo jokabide bat erakutsi duelako. Subjektuari atzeraelikadura ebaluatzailea itzultzean, pertsonak bere burua kritikaturik ikusten du, erasotua. Horregatik, pertsona hori defentsibano jarriko da eta ez du aldatzeko jarrera onik erakutsiko.

Kontzienteki behatzen badugu besteek eta guk geuk ere erabiltzen dugun hizkuntza, ematen dugun feed-back-ean eta hirugarrenen aurreko iruzkinetan forma desegokiak indentifikaturik ditugu. Hizkuntza baloratzaileak eta ez hain deskribatzaileak ez digu informazio erabilgarri eta berariazkorik ematen.

Hizkuntza modu desegokian ikusteko forma batzuk ondoko hauek dira:

1. Jeneralizazioa:

Adibideak: "Kontua da bera ez dela arduratsua", "3.F-koak oso asaldaturik eta hitzundu daude", "Alfer gorotza da"...

2. Esaldian izena, esleitutako nolakotasuna edo ekintza ez zehaztea:

Adibideak: "Niri ez zait portaera hori gustatzen", "Hauek horrelakoak dira", "Hemen oso funtzionamendu ezezkorra dago"...

3. Besteengatik hitz egitea:

Adibideak: "Jakin badakit gainerakoek ere ez dutela proiektu hau gustuko", "Inor ez dago ados ikastetxeko prestakuntzarekin",

"Irakasle guztiek diotea alferra zarela"...

Komunikazio hori "birkokatzeko" ardura dugunean (bitartekariak, negoziatzaileak... garelako), galderak erabil ditzakegu mezu balorantzaile eta ez oso erabilgarri bat mezu deskribatzaile bihurtzeko. Adibideak: "Ardurarik hartu ez zueneko adibideren bat emanen didazu?", "Zure ikuspuntutik, azalduko didazu zer ez zaizun gustatzen proiektutik?", "Zehazki nor dira? eta azal diezadazu gehiago nolakoak diren", "Esan diezazkizazu gauza gehiago honi buruz...", "Adibide bat eman diezazkizazu?"...

Feed-back-a hartzen dugunean, saiatzen gara azalpenak ematen edo garrantzia kentzen edo gauzak egitea galarazten diguten baldintzak argudioztatzen. Ez da beharrezkoa; eskerrak ematea nahikoa da.

GEUZ-etik (2005) eta Guix-etik (2008) egokitua

Mezu deskribatzaileak edo ebaluatzaileak	hcs05a04
<p>Irakurri ondoko esaldi hauek eta jarri D bat mezua deskribatzailea bada eta E bat mezua ebaluatzailea bada. Jarraian, alderatu balioespenak 3ko taldeetan. Bateratzea.</p>	
<ul style="list-style-type: none">• etxeko lanak egunero egiten dituzunean errazago prestatzen dituzu azterketak eta nota hobek ateratzen dituzu• ez zara ahalegintzen eta, ondorioz, ez zara inora ere iritsiko• gehiegikerietan aritu zara Saioarekin, ezin da jendea horrela tratatu• konturatu naiz taldean lan egiten ari zineten bitartean nola Karlos alde batean gelditu den eta ia-ia ez duen parte hartu• zure semea agintzailea da eta irakasleak harrokeriaz tratatzen ditu• hala segitzen baduzu, zureak egin du• 2. F-ko ikasgelako hauekin ez dago ezer egiterik• zergatik ez duzu Karlosekin lan egin nahi?• Patricia, zergatik zara hain astuna?• ikusi dut gaurko klasean ez duzula ariketa idatzirik egin eta borragoma puska txikitik zatitu duzula; hitz eginen didazu hortaz?• Jon, nazkagarri hutsa zara, beti molestatzen• Robertok bi aste daramatza etxeko lanik ekarri gabe, klasean ariketak egin egiten ditu, baina ez du parte hartzen ez badiozu bederen galdetzen ari zuzenean• ezin du gehiago• deitzen dizut zure alaba Martak bitan ez duelako irakasle bat errespetatu. Dena hasi da irakasleak esan dionean gehiago ikasi behar duela eta hark, zakar, bakean utz zezala erantzun dionean, bera (irakaslea) ez zela inor bere bizitzan sartzeko... Honetaz guztiaz hitz egin nahi nuke zuekin.• irakasleek ez digute entzuten	

Hizkuntza deskribatzailea	hcs05a05												
<p>Hizkuntza baloratzailea izateagatik desegokiak diren zenbait esaldi aurkeztuko dira. Binaka galdera bat pentsatu behar da, mezua argitzen eta komunikazioa modu deskribatzailean "berriz txertatzen laguntzen duena. Galderekin hasierako mezua aldatu behar da. Kontuan izan hurrengo erroreak aldatu behar direla, hurrengo taularen arabera:</p> <table border="1" data-bbox="395 613 1200 875"><thead><tr><th>Hasierako mezua</th><th>Beharko luke</th></tr></thead><tbody><tr><td>Baloratzailea</td><td>Deskribatzailea</td></tr><tr><td>Pertsonarengana bideratua</td><td>Jokabidera bideratua</td></tr><tr><td>Zu mezua</td><td>Ni mezua</td></tr><tr><td>Jeneralizazioak</td><td>Zehaztapenak</td></tr><tr><td>Mespretxuzko hizkuntza</td><td>Errespetuzko hizkuntza</td></tr></tbody></table> <p>Parte-hartzaile guztiak adostu eta baloratzea mezuak eraldatzea lortzeko planteaturiko galderen balizko eraginkortasuna.</p>		Hasierako mezua	Beharko luke	Baloratzailea	Deskribatzailea	Pertsonarengana bideratua	Jokabidera bideratua	Zu mezua	Ni mezua	Jeneralizazioak	Zehaztapenak	Mespretxuzko hizkuntza	Errespetuzko hizkuntza
Hasierako mezua	Beharko luke												
Baloratzailea	Deskribatzailea												
Pertsonarengana bideratua	Jokabidera bideratua												
Zu mezua	Ni mezua												
Jeneralizazioak	Zehaztapenak												
Mespretxuzko hizkuntza	Errespetuzko hizkuntza												
<p>"Alfer hutsak dira eta ez dute sekula lanik egiten".</p> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <p>"Maria izan daitekeen emakumerik berekoiena da, ez du sekula deusetan ere parte hartzen".</p> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <p>"Hemen arazoa iruzurra da. Ezin zara haren hitzekin fidatu".</p> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <p>"Ana beti tartekatzen da besteen kontuetan".</p> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <p>"Esaten dute edozein tontakeria egiteko gai dela eta ezin zarela hartaz fidatu."</p> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/>													

"Ezin da harekin hitzekin, manipulatzaile hutsa da".

"Oso autoritarioa da eta horregatik denak ikaraturik daude".

"Hemen familiak halakoak izaten dira".


"Horri ezerk ere ez dio axola, ez zigorrek, ez sariek".



"Jasaezina da eta ikaskide guztiak kokoteraino dauzka".

Komunikazioa umore modura

hcs05a06

5-6 pertsonako taldeak eratu, aukeratu binetetako bat eta aztertu hizkuntzari eta komunikazioari dagokienez. Azaldu gainerako taldekideei komunikazioko zer alderdi adierazten den binetan.





SEIGARREN SAIOA: Elkarrizketa ikasleekin. Irakasleendako hezkuntza tresna bat.	hcs06a00
<p>HELBURUAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• Taldeka parte hartzeko dinamikak garatzea.• Ikasleekiko harremanean elkarrizketaren aukerak zein diren ezagutzea.• Komunikazioaren alderdietan sakontzea.• Elkarrizketak diseinatzea. <p>JARDUERAK</p> <ul style="list-style-type: none">• "Galdera bat da?" Hasierako jarduera, ideien, iritzien eta abarren azalpena galderetatik bereizteko eta egoera osoa ulertu arte gure balorazioak, gomendioak, kontseiluak eta abar atzeratzeko zailtasuna esperimintatzea.• "Aprobetxategi". "La entrevista: un instrumento de trabajo para el profesorado" [Elkarrizketa: irakasleendako lan-tresna]" bideoaren lehen eszena ikustea. Taldeka aztertzea.• "Elkarrizketa". Testua irakurri eta aztertzea. Bikoteka hezkuntzako elkarrizketak egiteko gidoia prestatzea.• "Prestatutako elkarrizketa". Bideo beraren bigarren eta hirugarren eszenak ikustea: "Hitzordua" eta "Prestatutako elkarrizketa". Behatzea, emandako adierazleak kontuan hartuz eta taldeka komentatzea.• "Elkarrizketarako gidoia". Aurretik prestatutako gidoia bikoteka egokitu taldeetan komentatutakoaren ondoren. Bateratzea.• "Benetako elkarrizketa bat prestatzea". Elkarrizketa bat bikoteka prestatzea ikasleren batekin hurrengo egunetan egiteko.	

Galdera bat da?

hcs06a01

HELBURUA: Azalpenaren eta galderen artean bereizketa egitea eta galderen artean, berriz, galdera irekien, itxien, erretorikoen eta abarren artean, eta haiek komunikazioan duten erabilgarritasuna baloratzea.

PROZEDURA: Seko taldeetan banatuko dira. Parte-hartzaile kopuruak aukera ematen badu, talde batek jarduera egiten duen bitartean, beste talde bateko kideak behatzaile arituko dira. Taldeko kide batek besteei azalduko die beren ikasgelako harreman-egoera bat. 10 minutuz azalpenak emanen dira eta ez da galderarik eta itaunik formulatuko. Gainerakoek, aitzitik, soilik galderak egin ditzakete.

Solasaldiak hurrengo 10 minutuan segituko du. Azalpena egin duenak orain soilik galderak egiten ahalko ditu eta taldeko beste kideek soilik euren ekarpenak egiten ahalko dituzte.

Denbora bukatu ondoren, entzule izan direnek lana nolakoa den baloratuko dute. Parte-hartzaileek esperimentatu dituzten zailtasunak komentatuko dituzte eta taldean komunikazioa nolakoa izan den esanen dute.

Taldeen artean rolak alderantzikatuko dira eta bukaeran osotasunaren ebaluazioa egingen da.

R. Hostie-tik egokitua (1994)

Aprobetxategi	hcs06a02
<p align="center">"La entrevista: un instrumento de trabajo para el profesorado" [Elkarrizketa: irakasleendako lan-tresna]" bideoaren "A salto de mata" [Aprobetxategi] eszena aztertzea</p> <p>Eszena behin ikusi ondoren, parte-hartzaile bakoitzari erantzun beharreko galdera batzuk emanen zaizkio. Alderdi hauek kontuan izanik berriro ikusiko da bideoa. Jarraian, 4-5 pertsonako taldeak eginen dira eta galdera-sortako puntuen gainean eztabaidatuko da.</p>	
<p>1.- Zer lortu du tutoreak parte-hartzearekin?</p> <p>2.- Bere jardunean, zer izan da desegokia? (Espazioari, denborari, edukiari, harremanari eta abarri buruzko aipamenak)</p> <p>3.- Zure ustez, zer izan da egokia edo baikorra?</p> <p>4.- Zer eginen zenuke "elkarrizketa" hau hobetzeko?</p> <p>5.- Zein izan daiteke helburua?</p> <p>Bideoa: "La entrevista: un instrumento de trabajo para el profesorado" [Elkarrizketa: irakasleendako lan-tresna] Madrilgo Erkidegoko Hezkuntza Kontseilaritza. (1996)</p>	

Elkarrizketa	hcs06a03
<p>Hurrengo testua irakurri eta bikoteka komentatu ondoren, hezkuntzako elkarrizketa bat prestatzen lagunduko duen gidoi bat prestatu.</p>	
<p>Tutoreek alderdi akademikoetan, eta portaera eta bizikidetzakoetan sakondu nahi dutenean elkarrizketa erabiltzen dute. Horixe da maizenik erabiltzen duten teknika. Ikasleekin erabiltzen da alderdi pertsonalak eta pribatuak landu nahi direnean, baita familiekin ere. Hala ere, ez dira beti emaitza baikorrak lortzen teknika honekin. Batzuetan irakasleak ez dira jabetzen zeinen indartsua izan daitekeen elkarrizketa hezkuntzako tresna modura.</p> <p>Elkarrizketa bat egin nahi denean familiekin edo ikasle batekin bi helburu nagusi kontuan hartu behar dira: lehenik, <i>edukia</i>, landuko den gaia eta, bigarrenik, <i>harremana</i>. Edukiari dagokionez, arazoa argitu behar da, eta soluzio bat baino gehiago aztertu eta baloratu, eta ekintza plan bat diseinatu behar da. Harremanari dagokionez, elkarrekiko ezagutza, konfiantza, lankidetzeta eta inplikazioa lagundu behar dira. Bi alderdi hauek erlazionatuta daude. Elkarrekiko ezagutza eta konfiantza lagunduz pertsonen arteko harremana hobetzen bada, kooperazioa eta inplikazioa ahalbidetuko ditu lantzen ari den arazoan edo atazan. Konfiantza izanez gero elkarrizketaren xede den gaia argituko da, aukera bat baino gehiago izanen da eta adostutako erabakiak hartuko dira.</p> <p>Elkarrizketan bost une edo fase izan daitezke: prestakuntza, irekiera, garapena, itxiera eta jarraipena.</p> <p><u>Prestakuntza:</u></p> <p>Elkarrizketa egin aurreko unea da. Elkarrizketa zorrotz planifikatu behar da. Horretarako nahitaezkoa da behar den informazioa biltzea eta datu esanguratsu guztiak kontuan hartzea. Era berean, hipotesiak eta balizko konponbideak ere gogoan erabil daitezke, baina behin-behinean, ez "hau da gertatzen dena eta beste hau egin behar da" moduko estiloari men eginez. Une honetan garapena planifikatu eta estrategiaren bat gogora ekarri behar da. Azkenik, hitzordua prestatuko da; garrantzitsuak dira aukeraturiko unea eta tokia.</p> <p><u>Sarrera edo irekiera:</u></p> <p>Elkarrizketaren lehen unean ezinbestekoa da "rapport"-a edo komunikazio-giro baikorra sortzea. Garrantzitsuak dira agur egiteko modua eta abegikor izatea, izen bereziak erabiltzea eta erabilitako komunikazio-estrategia ez-ahozkoak.</p> <p>Horretaz gainera, elkarrizketaren zergatia azaltzea eta topaketatik zer emaitza atera nahi den agerian uztea. Bestalde, aurrez ikusitako iraupena edo eskura dagoen denbora aipatzeko unea da, isilpekotasuna ziurtatzekoa, oharrak hartzeko zergatia azaltzekoa (notak hartu behar badira) eta elkarrizketaren gainean beste pertsonak helburuak adierazten uztekoa.</p>	

Kontuan hartu beharko da solaskidearen itzaropenak errealistak diren eta ez badira egoera/harreman birkokatu beharko da.

Garapena:

Fase honetan berebizikoak dira komunikazioa errazteko elkarrizketatzaileak dituen baliabideak: informazioa eskatzea; entzute aktiboa praktikatzea; eskura dituen datuak modu argi eta objektiboan ekartzea. Halaber, garrantzitsua da adostasun-puntuak identifikatzeko gaitasuna eta jardueraildoak prestatzea.

Une honetan garrantzitsua da egoera ulertzea, arazoa argitzea; galdera irekiak erabiltzen dira, batez ere hasieran. Informazioa trukatu da eta iritziak datuekin alderatuko dira.

Pertsonak iritziak eta kezak adierazteko aukera izan behar du. Elkarrizketatzailea adi egonen da sentimendu eta erreakzio emozionalak ezagutzeko, erreakzio defentsiboak identifikatzeko eta ahozko seinaleen eta ahozkoak ez diren seinaleen aurrean erne egonen da. Laguntza ematen saiatuko da, iritzirik eman gabe (onartu eta ezeztatu gabe).

Informazioa eman behar denean argi eta zehatz hitz egin eta ez erabili "jargoi profesionalik". Ez ahaztu elkarrizketaren helburua zein den, batzuetan solaskideen ideiak sakabanatzen dira eta proposatutako gaiarekin zerikusirik ez guten gauzez hitz egiten dute.

Jarraipenaren itxiera eta plangintza:

Komeni da fase honetan behar den denbora erabiltzea. Batzuetan denboraren aurreikuspenak huts egiten du eta presaka bukatzen da elkarrizketa. Hala gertatzen denean, elkarrizketaren helburuak ez dira betetzen eta, gainera, bi aldeak ez dira pozik gelditzen. Landu gabeko gaiak gelditzen badira, beste noizbait beste elkarrizketa bat egiteko aukera bilatu beharko da.

Fase honetan garrantzitsua da landutakoa laburbiltzea, ondorioak agerian uztea, konpromiso zehaztutara iristea eta ardurak banatzea. Halaber, erabakien jarraipena finkatzeko unea da eta nola eta noiz egingen den ezartzekoa.

Amaierako laburpena egin aurretik solaskideari galdetu behar zaio ea zerbait esan edo gehitu nahi duen.

Laburpenean elkarrizketan esan eta egin dena agertuko da eta ez da informazio berririk sartuko. Garrantzitsua da informazioaren ulermena gainbegiratzea.

Bukaeran, eskertu, onartu edo modu baikorrean baloratu daiteke elkarrizketa egin izana eta, hala bada, beste elkarrizketa baterako gonbita egin daiteke. Elkarrizketa bukatu ondoren, bukaeraren seinale ageriko eta kongruenteak eman behar dira.

Jarraipena:

Ez da hertsiki hartuta elkarrizketaren fase bat, baina nahitaezkoa da elkarrizketaren erabilgarritasuna bermatzeko.

Zehaztu behar da aurrez ikusitako ekintzak egin izana noiz gainbegiratuko diren eta lortutako aurrerapena nola balioetsiko den. Jarraipenak esanen digu aurrez ikusitako ekintzak nahikoak izan diren edo denbora luzeagoan mantendu behar diren, aldatu behar diren edo beste batzuegatik ordezkatu behar diren.

Egokitua: De Miguel, C. eta beste batzuk (1996). *La entrevista: un instrumento de trabajo para el profesorado*. [Liburua]. Madril: Hezkuntza eta Kultura Kontseilaritza. 97 or. + bideokasete 1.

Prestatutako elkarrizketa	hcs06a04
<p align="center">"La entrevista: un instrumento de trabajo para el profesorado" [Elkarrizketa: irakasleendako lantresna] BIDEOko "Cita" [Hitzordua] eta "Una entrevista preparada" [Prestatutako elkarrizketa] eszenak aztertzea</p> <p>Eszenak ikusi ondoren, parte-hartzaile bakoitzari gidoi bat emanen zaio zenbait adierazlerekin. Alderdi hauek kontuan izanik berriro ikusiko da bideoa. Jarraian, 4-5 pertsonako taldeak egingen dira eta gidoiko puntuen gainean eztabaidatuko da.</p>	
<p>1.- PRESTAKUNTZA</p> <ul style="list-style-type: none">• Irudietan ikusi duzunagatik, uste duzu aurretik prestatu dela elkarrizketa?• Aldez aurretik bildu da beharrezko informazioa?• Zure ustez, egon da "hitzordurik"?• Beste adierazle batzuk: <p>2.- IREKIERA</p> <ul style="list-style-type: none">• Elkarrizketatzaileak komunikaziorako eta iritziak trukatzeko girorik sortu du?• Elkarrizketatzaileak azaltzen du topaketaren arrazoia zein den eta zenbat uste duen iraunen duela?• Argi uzten du zer lortu nahiko lukeen?• Beste adierazle batzuk: <p>3.- GARAPENA</p> <ul style="list-style-type: none">• Esan daiteke elkarrizketa bideratzen duenak... Zailtasunak ulertzen saiatzen da?• Aurrean duenarekin informazioa egiazki trukutzen du?• Sortzen diren ideiak eskura dituen datuekin alderatzen ditu?• Elkarrizketaren helburuari jarraitzen dio, gaia lantzen du eta ez da beste gai batzuei buruz hitz egiten hasten?• Akordioak eta konpromisoak bilatzen saiatzen da?• Beste adierazle batzuk: <p>4.- JARRAIPENAREN ITXIERA ETA PLANGINTZA</p> <ul style="list-style-type: none">• Noizbait egiten da elkarrizketaren edukiaren laburpenik?• Agerian gelditu dira bukaerako ondorioak?	

- Agerian gelditu dira erabakiak edo konpromisoak?
- Esaten da nola egingen den jarraipena?

5. – KOMUNIKAZIOAREN ALDERDIAK

- edukiari eta aldeen arteko harremanari buruzko azterketa
- erabilitako entzute aktiborako estrategiak
- erabilitako mezu mota
- noizbait agertzen dira "komunikazioaren blokeatzaileak"?

Elkarrizketarako gidoia	hcs06a05
<p>Testua irakurri ondoren prestatutako gidoia berregin daiteke eta taldeen lanaren ondoan alda daiteke. Bikote berak berriz elkartuko dira eta prestatutako gidoia gainbegiratuko dute batera jarri baino lehenago.</p>	

ZAZPIGARREN SAIOA: Elkarrizketa familiekin, irakasleendako lantresna.	hcs07a00
<p>HELBURUAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• Taldeka parte hartzeko dinamikak garatzea.• Ezagutu elkarrizketaren aukerak familiekiko harremanean.• Komunikazioaren alderdietan sakontzea.• Elkarrizketak diseinatzea. <p>JARDUERAK</p> <ul style="list-style-type: none">• "Komunikazioa bizkarra emanaz". Komunikazioaren alderdi ez-ahozkoetan sakontzeko dinamika.• "Munduko jolasik zaratatsuena". Entzutearen eta entzuna izatearen garrantziaren gainean hausnartzeko jarduera.• "Zezenari adarretatik". "La entrevista: un instrumento de trabajo para el profesorado" [Elkarrizketa: irakasleendako lantresna] bideoaren laugarren eszena. Taldeka aztertzea.• "Gurasoak entzunez". Ikusi bosgarren eszena eta behatzea emandako adierazleak kontuan harturik eta taldeka komentatzea.• "Konponbideak bilatuz". Ikusi bideoaren azken eszena eta komentatu taldekide guztien artean.• "Benetako elkarrizketa prestatzea". Prestatu bikoteka elkarrizketa bat familiaren batekin hurrengo egunetan egiteko.	

Komunikazioa bizkarra emanez	hcs07a01
<p>HELBURUA: Komunikazioaren alderdi ez-ahozkoez jabetzea.</p> <p>PROZEDURA: Parte-hartzaileak bikoteka jarriko dira, bata besteari bizkarra emanez. Bikoteak bata bestearengandik bereizita egonen dira, molestatu gabe eroso hitz egiteko moduan. Eskatuko zaie 10 minutuz gaurkotasuneko edozein gairi buruz hitz egin dezaten.</p> <p>Denbora hori bukatu orduan, baloratuko da jarduera nola egin den, zein izan diren komunikaziorako keinuak alde batera uztean izan diren zailtasunak, zer aurpegi jarri den eta abar.</p> <p>Egokitua: Pinto, A. eta beste batzuk (2010)</p>	

Munduko jolasik zaratatsuena	hcs07a02
<p>HELBURUA: Baloratzea entzutearen eta entzuna izanaren garrantzia ongi komunikatu ahal izateko.</p> <p>PROZEDURA: Hiru pertsona "igorle" modura aukeratu eta gelako txoko batean bilduko dira. Ados jarriko dira beste hiru ikaskideri transmititu behar dieten esaldi edo mezu baten gainean. Ikaskide horiek "hartzaileak" izanen dira eta gelaren kontrako angeluan jarriko dira. Ahal bada, igorleei eta hartzaileei eskatuko zaie aulkien gainean zutik jar daitezela. Gainerako parte-hartzaileak gelaren erdian geldituko dira eta interferentziak egiten dituzte, ahots gora hitz egiten dute, hotsak egiten dituzte, barre egiten dute, distrakzioak egiten dituzte... Igorleek ahalegindu behar dute hartzaileei mezua bidaltzen eta, aldi berean, elkar ulertzen, ahotsa goratuz, keinuen bidez... Denbora-tarde bat utzi ondoren, esperientzia, aurkitutako zailtasunak eta ondorioak komentatuko dira.</p> <p>Egokitua: Pinto, A. eta beste batzuk (2010)</p>	

Zezenari adarretatik	hcs07a03
<p style="text-align: center;">"La entrevista: un instrumento de trabajo para el profesorado" [Elkarrizketa: irakasleendako lantresna] BIDEOaren eszena aztertzea</p> <p>Eszena behin ikusi ondoren, parte-hartzaile bakoitzari galdera batzuk emanen zaizkie, erantzun ditzaten. Galdera hauek kontuan harturik, berriz ikusiko da bideoa. Jarraian, 4-5 pertsonako taldeak egingen dira eta galdera-sortako puntuen gainean eztabaidatuko da.</p>	
<p>1.- Aztertu sarrera. Komunikazio giro ona ezarri da? Zer egin zezakeen baina ez du egin?</p> <p>2.- Erabili du entzute aktiborako estrategiarik?</p> <p>3.- Zure ustez, zer izan da egokia edo baikorra?</p> <p>4.- Eman hizkuntza baloratzaillearen ezaugarriak biltzen dituzten esaldi desegoki batzuk.</p> <p>5.- Nola hobetu daiteke?</p> <p>Egokitua: De Miguel, C. eta beste batzuk (1996). La entrevista: un instrumento de trabajo para el profesorado. [Liburua + bideoa]. Madril: Hezkuntza eta Kultura Kontseilaritza.</p>	

Gurasoei entzunez	hcs07a04
"La entrevista: un instrumento de trabajo para el profesorado" [Elkarrizketa: irakasleendako lan-tresna]" BIDEOaren"Escuchando a los padres" [Gurasoei entzunez] eszena aztertzea	
<p>Eszena ikusi ondoren, parte-hartzaile bakoitzari gidoi bat emanen zaio zenbait adierazlerekin. Alderdi hauek kontuan izanik berriro ikusiko da bideoa. Jarraian, 4-5 pertsonako taldeak egingen dira eta gidoiko puntuen gainean eztabaidatuko da.</p>	
<p>1.- PRESTAKUNTZA</p> <ul style="list-style-type: none">• Ondoriozta daiteke elkarrizketa aldeztu aurretik prestatu dela?• Zure ustez, irakasleak aldeztu aurretik bidatu du beharrezkoa den informazioa?• Zure ustez, egon da "hitzordurik"?• Beste adierazle batzuk:	
<p>2.- IREKIERA</p> <ul style="list-style-type: none">• Elkarrizketatzaileak komunikaziorako eta iritziak trukatzeko giro sortu du?• Elkarrizketatzaileak azaldu du topaketaren arrazoia zein den eta zenbat uste duen iraunen duela?• Argi utzi du zer lortu nahiko lukeen?• Beste adierazle batzuk:	
<p>3.- GARAPENA</p> <ul style="list-style-type: none">• Esan daiteke elkarrizketa bideratzen duenak... Zailtasunak ulertzen saiatzen da?• Aurrean duenarekin informazioa egiazki trukatu du?• Sortu diren ideiak eskura dituen datuekin alderatu ditu?• Elkarrizketaren helburuari jarraitu dio, gaia landu du eta ez da beste gai batzuei buruz hitz egiten hasi?• Akordioak eta konpromisoak bilatzen saiatu da?• Beste adierazle batzuk:	
<p>4.- JARRAIPENAREN ITXIERA ETA PLANGINTZA</p> <ul style="list-style-type: none">• Noizbait egin da elkarrizketaren edukiaren laburpenik?• Agerian gelditu dira bukaerako ondorioak?	

- Agerian gelditu dira erabakiak eta konpromisoak?
- Esaten da nola egingen den jarraipena?

5. – KOMUNIKAZIOAREN ALDERDIAK

- Zer helburu bete dira edukiari eta aldeen arteko harremanari dagokienez?
- Entzute aktiboko zer estrategia erabili da?
- Zer mezu mota erabili dira?
- Noizbait ageri da "komunikazioaren blokeatzailerik"?

6. – HOBETU DAITEZKEEN ALDERDIAK

- Sarrerari dagokionez.
- Garapenari dagokionez.
- Komunikazioko estrategiei dagokienez.

Egokitua: De Miguel, C. eta beste batzuk (1996). La entrevista: un instrumento de trabajo para el profesorado. [Liburua + bideoa]. Madril: Hezkuntza eta Kultura Kontseilaritza, Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia.

Konponbideak bilatuz

hcs07a05

"La entrevista: un instrumento de trabajo para el profesorado" [Elkarrizketa: irakasleendako lan-tresna]" BIDEOaren "Buscando soluciones" [Konponbideak bilatuz] eszena aztertzea

Eszena ikusi ondoren komentatu taldekide guztiekin.
Baloratu alderdi baikorrak eta ezkorrak.

ZORTZIGARREN SAIOA: Komunikazioa hobetuz.	hcs08a00
<p>HELBURUAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• Taldeka parte hartzeko dinamikak garatzea.• Komunikazioaren alderdietan sakontzea.• Komunikazioa hobetzea zenbait gakoren bitartez. <p>JARDUERAK</p> <ul style="list-style-type: none">• "Zurrunmurrak". Komunikazioan gertatzen diren distortsioen gainean sakontzeko talde-dinamika.• "Bost itsasargien uhartea". Testua irakurri eta aztertzea. Komunikazioa hobetzeko bost giltzarrien gainean taldean eztabaidatzea.• "Agurreko mezuak". Egindako lana ebaluatu eta baloratzeko jarduera.	

Zurrumuruak

hcs08a01

HELBURUA: Pertsonen arteko komunikazioan gertatzen diren distortsioak aztertzea.

PROZEDURA: Parte-hartzaileek 5 pertsonako taldeak eginen dituzte. Talde bakoitzeko bat gelan geldituko da animatzailearekin. Gainerakoak kanpora aterako dira. Animatzaileak lehenei testu bat irakurriko die. Testu horretan zenbait leku, ordu, pertsona eta abarri buruzko informazioak biltzen dituen berria ematen da. Lehenek bigarrenari berria transmitituko diete. Jarraian, bigarrenek hirugarrenari eta hala bosgarrenetara iritsi arte. Taldeen artean nahiko tarte utzi behar da batzuk besteei trabarik ez egiteko. Berria bosgarrenari iritsi zaienean, bateratzea eginen da eta aztertuko da bakoitzak zer ulertu duen, informazioa nola distortsionatu den, zer xehetasun galdu den bidean eta zer gehitu den.

Berri baten eredia:

"Trinidad Jimenez Osasunaren eta Politika Sozialaren ministroak uste du Tabakoaren aurkako Legearen aldaketak 2011ko urtarrilaren 1ean hartuko duela indarra. Lege horrek erretzea debekatuko du Espainiako toki itxi publikoetan. Hala ere debekua lehenago ezar liteke baldin eta Diputatuen Kongresuko alderdi politikoak adostasunera iristen badira.

Legea aldatzeko proposamenaren helburu nagusia da erretzeko debekua espazio publiko itxi guztietara hedatzea bada ere, erretzea izanen da espazio publiko irekietan, hots, terrazetan eta kirol estadioetan.

Erreformatik ez du 8.b artikuluan aldaketarik bildu - horretan esaten da hotelek, ostatuek eta antzeko establezimenduek erretzeko guneak prestatu ditzaketela eta gelen ehuneko 30 erretzaileendako gorde-.

Proiektu honi esker, erretzen ez duenak ez ditu tabakoaren ondorio kaltegarriak jasoko eta kerik gabeko guneak aukeratzeko askatasuna bermaturik izanen du. "Espainiarren ehuneko 75ak ez du erretzen eta gero eta turista gehiagok kerik gabeko guneak bilatzen ditu" esan du ministroak. Horretaz gainera, azpimarratu du Espainian urtero 5.000 erretzaile pasibo hil egiten direla.

Erreformak azpimarratzen du ostalaritzako langileen eta 18 urtez beherakoen osasuna babesteko eskubidea.

Osasun Ministerioak prestatutako argudioen zerrendan esaten da Espainian urtero 50.000 pertsona inguru hiltzen dela tabakoaren kontsumoaren ondoriozko eritasunengatik; trafiko istripuengatik, hiesagatik eta legez kanpoko drogak kontsumitzeagatik hildakoak baino gehiago."

A. Pinto-tik eta beste batzuegandik egokitua (2010)

Bost itsasargien uhartea

hcs08a02

Ferrán Ramón Cortesen *La isla de los 5 faros* [Bost itsasargien uhartea] liburua (2006): irakurri eta hausnartzea.

Menorkako itsasargietan barna egindako ibilbide baten bitartez eta itsasargien hizkuntza metafora moduan ibilita, egileak gure komunikazioa hobetzeko ezinbesteko 5 gako aurkeztu dizkigu. Gako horiek baliagarriak dira gure komunikazio pertsonalerako eta talde handiei egin beharreko azalpenetarako.

Bost gako horiek ondoko hauek dira:

- 1. Mezu handi bakar bat...*
- 2. modu gogoangarrian kontatzea...*
- 3. lotzen duen hizkuntza bat erabili...*
- 4. balio duen mezua da hartzailera bereganatzen duena...*
- 5. gonbidatu konbentzitzen saiatu beharrea*

Saioaren aurreko astean liburua bakarka irakurriko da. Saioan liburuko ERANSKINA irakurriko da (127-139 or.).

4-5 pertsonako taldeak egingen dira eta ondoko galderak erantzuteko eskatuko zaie. Jarraian, taldeen hausnarketak bateratuko dira eta denak solasean hasiko dira.

Bost itsasargien uhartea

Hausnarketarako galderak

1. Zer esan nahi du komunikazio guztiek ideia bat, ideia bakar eta handi bat behar dutela sostengu moduan? Ideia asko transmititu nahi direnean, zer ondorio izaten da? Pentsatu irakasle bileretan, eta familiekin egin beharreko bileretan eta elkarrizketetan, ikastaroetan eta prestakuntza mintegietan...
2. Irakasle moduan ematen ditugun mezuek "distira egiten dute" beste mezu batzuen gainetik? Hausnartu gaur egun gure ikasleei zenbat mezu ematen zaizkien. Zer baliabide erabiltzen dituzte? Zer baliabide erabil dezakegu guk? Mezua iritsarazteko istorioek duten ahalmenarekin ados zaudete?
3. Erraza egiten zaigu hizkuntza aukeratzea guk esandakoa nor entzuten ari den pentsatuz? Izan duzue esperientziarik, zeinetan igorleak "lainoa bidaltzen zuen" eta oso urrun sentiarazten zintuen? Zuen hizkuntzak zuen solaskideekin "konektatzeko", zer alderdi zehatz har daitezke kontuan?
4. Ados zaudete gure ahotsak, gure gorputzaren hizkuntzak hitzak baino gehiago transmititzen dituela? Adibideak eman erakusteko nola zuen asmoa ez den ulertu edo pertsonak esaten dizuena eta ahoz transmititzen ez duena kontraesankorrak diren.
5. Komunikatzerakoan nola zentra gaitzke gure sentimenduetan?
6. Zer egin ohi dugu gure mezuarekin gainerakoak konbentzitzeko? Sinesgarria izaten da? Nola aplikatu dezakegu "gonbidatzea" gakoa gure bizitzan eta eguneroko komunikazioetan?
7. Ekarri burura irakasleei komunikazioa hobetzen laguntzen dieten 5 kontseilu zehatz eta praktikoa, egileak ematen dituen 5 gakoak kontuan izanik.

Ferran Ramon-Cortés (2006). *La isla de los 5 faros. Un recorrido por las claves de la comunicación*. Barcelona: RBA Revistas.

Agurreko mezuak	hcs08a03
<p>HELBURUA: Taldean egindako lanaren gainean hausnartzea eta pertsonen prestasuna eta ekarpenak baloratzea.</p> <p>PROZEDURA: parte-hartzaile bakoitzak orri batean ikaskide bati, animatzaileari, talde osoari... egindako agur-mezua idatzi beharko du. Mezu horretan aipatuko dira egindako jarduerak eta pertsona horrek edo horiek egindako ekarpenak, taldearen zati batek giro ona eta lana ekarriz. Orriak tolestuko dira eta kanpoko aldean idatziko da mezua nori zuzentzen zaion edo zaien. Mezuak emanen dira eta batzuk taldearendakoak badira ahots gora irakurriko dira. Norbait mezu bat hartu badu eta irakurri nahi badu, egin dezake.</p> <p>A. Pinto-tik eta beste batzuegandik egokitua (2010)</p>	